

# Ekaina

BERTSOZALETASUNARI BURUZKO IKERKETA  
SOZIOLOGIKOAREN EMAITZEN

a u r k e z p e n a k

**Ekainak 14**, osteguna. **IRUÑEA**. 18:00etan,  
Nafarroako Bertsozale Elkartearen egoitzan (Eusko Kultur Mintegia).


**Ekainak 20**, asteazkena. **AMASA-VILLABONA**. 18:00etan,  
Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan (Subijana etxea).

**Ekainak 21**, osteguna. **DURANGO**. 18:00etan,  
Udal Euskaltegian.

**Ekainak 27**, asteazkena. **GASTEIZ**. 18:00etan,  
Arabako Bertsozale Elkartearen egoitzan (Amaia Zentroa).

**Ekainak 28**, osteguna. **SENPERE**. 18:00etan,  
Bertsularien Lagunak Elkartearen egoitzan (Larraldea Etxea).

Egin berr: den ikerketari buruzko jakin-minik bai?  
Zatoz egokien datorkizun aurkezpena!



# Iraila


ILDO ESTRATEGIKOEN INGURUKO

t a i l e r r a k

**Irailak 22**, larunbata, goizez eta arratsaldez

\*Lekua garaiz jakinaraziko da

Ba al duzu bertsozaritzaren bideari buruzko  
kezkarik edo inbuzioirik?



# Azaroa

DATOZEN URTEETARAKO  
HELBURU OROKORRAK FINKATZEKO

g o g o e t a

**Azaroak 10-11** asteburua, goizez eta arratsaldez


\*Lekua garaiz jakinaraziko da

Non ikusi nahi zenuke bertsozaritza hemendik 10  
urtera?

**ERDU**   
ETA ERANTZUN PUNTUA

Har ezazu parte!

Eman izena [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean edo  
(+34) 943.69.41.29 telefono zenbakira deituz.



Bertsolari, gai-jartzaile, epaile, antolatzaile, zale, bazkide, bertso-eskolako kide... zuri zuzenduta antolatu dugun proposamen bat luzatzera gatozkizu.

30 urte ondo beteta dituen proiektua da Bertsozale Elkartearena. Batzuk hazia ereindakoak zarete, beste batzuk, aldiz, zuhaitz sendo eta emankor gisa ezagutu duzue elkartea.

Guztion artean ureztatu eta elikatu dugu mugimendua eta guztion egitekoa da berau etengabe biziberritzea.

Ez du ahalegin berezirik eskatzen: pausatu, ostertzera begiratu eta irudimena martxan jartzea. Ederra ezta? Ba... horretara gonbidatu nahi zaitugu.

2006. urtean egin genuen azkeneko geldialdia, orduan 2018. urtera bitartean ibili beharreko bidea marraztu genuen, eta bai asmatu ere!

Orduan nola, bidean arnasaldi bat hartu eta norabidea berrikusi nahi dugu aurten eta, horretarako, hiru etapez osatutako bira antolatu dugu. Hona hemen laburbilduta:

**1go etapa, ekainean:** egin berri dugun **bertsozale-tasunari buruzko ikerketen emaitzak ezagutzeko aurkezpenak.**

Erosoa gerta dakigun, lurraldeka antolatuta, 5 lekutan egingo dugu aurkezpen bera: Iruñean, Amasa-Villabonan, Durangon, Gasteizen eta Senperen.

Ordubeteko aurkezpena izango da eta, ondoren, galderak eta iritzia partekatzeko aukera izango dugu.


**2. etapa, irailan.** Ikerketak jarritako gaietatik abiatuta, bertsolaritzan eragiten ari garen guztion kezka eta intuizioak entzuteko eta elkarrekin partekatzeko elkartuko gara. Talde txikitan batu eta solasean arituko gara, jarritako gaietara emateko.

Gorde ondo data zuon agendatan: **irailaren 22a.** Antolakuntzak garaiz jakinaraziko du lekua, bizikletak ondo olioztatu eta zehazten zaigun tokira erraz iristeko.

**3. etapa, azaroan.** Ikerketako gaietara bertsolaritzako eragileok emandako erantzunak altzoan hartu eta aste-buru pasa egingo dugu **azaroaren 10-11 aste-buruan.** Etorkizunera begira gure ilusioak partekatu eta berriro bidezidorrak irudikatuko ditugu.

### Plan ederra ezta?

Ba txirindua herdoildu aurretik, jar zaitez martxan eta hauta ezazu ekainean ongien datorkizun egun eta lekua eta eman izena **www.bertsozale.eus** webgunean horretarako propio prestatu dugun formularioa betez edo **(+34) 943.69.41.29** telefono zenbakira deituz.



## Bertsozale Elkartearen g o g o e t a e s t r a t e g i k o a

2018

